


URDAIBAI

2016
zenb. 08
.....

© MAGAZINE

Nortzuk jasotzen dabe *DBEa* BUSTURIALDEAN?



- | JOSE ANTONIO URIARTE / TXASORI ELKARRIZKETA
- | MATXITXAKO, URDAIBAICO ARGIA
- | UCELAY, ARTISTA HANDI BAT BUSTURIAN
- | KARAKOLAK, NEGUKO PLATERRA
- | OGELLAKO ALTXOR NATURALA

Trenbide eraikuntza eta kudeaketa, gure DNA

ETSk, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen erakunde publikoak, esperientzia luzea du trenbide azpiegituren diseinuan, eraikuntzan eta mantentze lanetan. 250 pertsona baino gehiago eraginkortasunaren, iraunkortasunaren eta bikaintasunaren bila tren kudeaketa. Gure izateko arrazoia da.



Abiadura Handiko Lineak



Trenbide Metropolitarrak



Tranbia Sistema

PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



TIPIFIKATUTAKO solidaritatea

Urtea amaitu da, Gabonetan gaude eta elikagaiak batzeko, erropak edota jostailuak emoteko sasoia hasten da. Hauek muturreko pobrezian bizi direnentzako lagungarriak dira. Pertsonen sentikortasunaren, solidaritatearen eta gizarte inplikazioaren ondoriozko ekintzak dira. Baina erakunde mailako solidaritatea ez da piztuten berezko ontasunaren arabera. Solidaritate estrukturala eta egituratutako hori erakundeen eta gobernuen ardura da eta araututa dago. Bere helburua pertsonen duintasun iraunkorra bermatzea da, besteak beste, bizitzeko etxe bat izatea eta elikatu ahal izatea, bermatutako oinarritzko gizarte zerbitzuak, hezkuntza... Gizarte zerbitzuak amankomunatuta eta ondo artikulatuta daude Busturialdean, profesionalen lantalde baten eskutik. Zerbitzu hauek pertsona askoren bizi kalitatea hobetzen dabezen zenbait beharrianak betetzen dabez. Baina beste era batera murriztasun eta pobrezia egoerak barriro bideratu eta arintzeko legeak daude. Eremu honetan Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DBE) dihardu, Lanbidek (E.J) kudeatutakoa. Honen estatistiken datuen arabera Busturialdea *osasuntsu* dago. Baina estatistikek ez dabe pobrezia egoeran dauden pertsonen sufrimentua kentzen. Geure eskualde mailako erronka zero pobrezia-
ren estatistika lortzeko behar den aberastasuna sortzea da.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:
komertzial@nuevaeuropa.com / tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN
LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen
hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.M
Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.eus



LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA

04 DBEK BUSTURIALDEAN
ez dau 2,5% a gainditzen

VISIT URDAIBAI

09 SAN ANDRESEKO GANGA,
egur polikromatutako unibertso
harrigarria

ELKARRIZKETA

10 JOSE ANTONIO URIARTE *ITXASO*,
komuniketan, komuniketan,
komuniketan

LEKUKO

14 MATXITXAKOKO ITSASARGIA,
Urdaibaira eramaten
gaituen argia

KALERIK KALE

16 UCELAY,
Busturia inspirazio iturri
izan eban margolari berezia
eta unibertsala

SAL TSA-PORRU

18 KARAKOLAK,
neguko platera

BERDEAN

20 OGELLA KO
marearteko zabalgunea,
apartekoa

BETI-JAI

22 HORRA HORRA,
Olentzero eta
Mari Domingi

DBEK BUSTURIALDEAN EZ DAU %2,5A GAINDITZEN

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen dauen pertsonaren





profila Busturialdean adin erdiko andrazkoa da, 30 eta 54 urte bitartekoa eta bertokoa. Kasu askotan, guraso bakarreko familiak dira, oinarrizko hezkuntza mailagaz, biztanleriaren mailaren beherakoa. Diru-laguntza hau kolektibo zaurgarriak babesteko sistema lez sortu zan. Onuradunak dira baita be gutxieneko errenta jasotzen ez dabeen pentsionistak eta etxebizitzako osagarriaren bitartez, euren etxeetako alokairua ordaindu ezin dabenek, ezarritako baldintzak betez.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) lana bizkortzeari eta gizarteratzeari laguntzeko prestazioa da. Oinarrizko behar pertsonal eta familiarrei aurre egiteko prestazio ekonomikoa da, baliabide nahikoak ez dauzkatenentzat, lan munduan

irtenbide bat bilatzen laguntzeko. Azken finean, Euskadin pobrezia arriskuan dauden familientzako "koltxoi soziala" den babesa sistema da.

DBEa Busturialdean

5 azpiko baloreak ez dira agertzen datu babesa bermatzeko.
Honek balore orokorretan aldakuntza txiki bat sortzen dau.

	BUSTURIA	EA	ELANTXOBE	EREÑO	GAUTEGIZ ARTEAGA	IBARRANGELU	MENDATA
 GIZONEZKOAK	18	6	<5	<5	7	<5	<5
 ANDRAZKOAK	34	10	13	<5	6	9	<5
 ATZERRITARRAK	10	<5	<5	<5	—	<5	—
 PENTSIONISTAK	16	5	11	<5	8	5	—
GUZTIRA (Gizonezkoak + Andrazkoak)	52	16	17	<5	13	11	<5



GIZARTE JUSTUAREN ALDE

1987an burututako Euskadiko pobrezia gainera ikerketan dauko jatorria DBEa. Betidanik opatsua izan zan gizarteari deigarra izan zan, 80. hamarkadako birmoldaketa industrialaren ondoren, langabezia handia eta pobretasunaren errealitateari aurre egiten eban gizartea, hainzuzenbe. Hurrengoko pausua 1989an emon zan, orduan Ardanza Lehendakariaren gobernua Pobrezia aurkako Borrokarako Plan Integrala jarri eban abian. Plan horrek, lehen aldiz, gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzeko sistema finkatzen eban.

DBEaren helburua gizarte hobea eta bidezkoagoa lortzea da

Orditik hona, diru-laguntza hau gaur egungo diru-sarrerak bermatzeko prestazio publikoaren sistemari amaitzen den bidean dabil. Azken hau, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentan (DBE), Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarrian (EGPO), eskubide gisa finkatuta, eta Gizarte-larrialdiko laguntzetan (GLL) oinarrituta dago.

Kolektibo zaugarriak babesteko sistema hau gizarte hobea eta bidezkoagoaren alde egiteko sortzen da, iruzur kasuen gainera. Askotan, kasu hauek laguntza hauen jasotzaileen

Iturria: Lanbide

MORGA	MUXIKA	MUNDAKA	SUKARIETA	ERRIGOITI	FORUA	KORTEZUBI	MURUETA	NABARNIZ	AJANGIZ	ARRATZU
<5	11	16	6	<5	12	<5	—	<5	<5	<5
5	6	24	<5	<5	9	<5	<5	<5	—	<5
<5	<5	6	<5	<5	<5	<5	—	<5	—	—
<5	6	16	<5	<5	8	<5	—	<5	—	<5
8	17	40	10	5	21	<5	<5	<5	<5	<5

ONURADUNAK DBE BERMEO

313

30 eta 54 urte bitartekoak

104

65 urte edo gehiago

229

Gizonezkoak

298

Andrazkoak (%56,54)

136

Atzerritarrak (%25)

170

Pentsionistak (%32,2)

Andrazkoak (%67,1)

Gizonezkoak (%32,9)

GUZTIRA
BERMEO

527

Biztanlegoatik
%3,1

egokitasuna zalantzan jartzen dabe. Halanda be, Lanbideren datuen arabera, 2015ean, iruzur kasuak emondako diru-laguntzen %1,02a izan ziren.

DBEk hilerok 625 eta 959 euroko gutxieneko sarrerak bermatzen dauz (familia unitatearen kideen zenbatekoaren arabera), zenbait baldintzak betetzen dauzen gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden herritarrentzako. Lanbako pertsonak, baliabide gutxi daukaten langileak, pentsionistak, bestelako pentsioen onuradurak, eta erroldatutako inmigranteak, etabarrekoak

jaso ahal dabe laguntza hau. Eta zifra honen azpiko errentaren bat jasotzen badabe, honen kasu, diru gutxiko soldata edota pentsioa, Eusko Jaurlaritzak diferentzia ordaintzen deutse. Prestazio hau etxebizitzako osagarriekaz bateragarria da (250 euro hilerok), etxe bat izatea bermatzeari zuzenduta.

Lanbideren datuen arabera, 2015ean, iruzur kasuak emondako diru-laguntzen %1,02a izan ziren.

ferrovial
servicios

Ute berri on!

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

L&G
LOGÍSTICA

**TRANSPORTE,
ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...**

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



ONURADUNAK

DBE GERNIKA-LUMO

250

30 eta 54 urte bitarteakoak

93

65 urte edo gehiago

GUZTIRA
GERNIKA-LUMO

430

Biztanlegoatik
%2,5

Gizonezkoak

165

265

Andrazkoak (%61,62)

139

Atzerritarrak (%32,3)

Pentsionistak (%27,2)

Andrazkoak (%69,2)
Gizonezkoak (%30,8)

117

EMAKUMEA ETA DBE

Busturialdeko datuei begira, DBE jasotzen daberen pertsonen batzuetan ez dau %2,5a gaintitzen. Profilaria dagokionez, Euskadin bezalako da, bertoko emakumea eta adin erdikoa. Eskualdeko herri nagusiak diren Gernika-Lumo eta Bermeoko datuak aztertuz profil hori ikusten dogu. Gernika-Lumon biztanleriaren %2,5a da DBEren onuraduna eta honen %61,62a andrazkoak dira. Diru-laguntza hau jasotzeko baldintzak betetzen daberen atzerritarren kopurua onuradunen %32,3a dira eta pentsionistak %27,2. Prestakuntzari dagokionez, %63,5ak bakarrik dauzka eginda derrigorrezko ikasketak. Bermeon, biztanlegoaren %3,1ak jasotzen dau DBEren bitartez diru-laguntzaren bat. Hauetatik %56,54a emakumezkoak dira, atzerritarrak %25a eta %32,2a pentsinodunak. Gehiengoak, %69,8a derrigorrezko ikasketak egin dauz soilik.

Gainera, DBE jasotzen daberen pentsionisten artean, gehiengoak andrazkoak dira, bai Gernika-Lumon (%69,2) bai Bermeon be (%67,1); eta laguntza jasotzen daberen guraso bakarreko familiei dagokionez, Gernika-Lumon %98,6a emakumezkoak dira eta Bermeon %88,4a. Emakumeak historikoki bizi izan dauen lan egoera txarraren eta guraso bakarreko familiaren burua bezala duen erantzukizuna bereganatzearen adierazlea da hau.

Gaur egun, euskal biztanleriaren %10a DBEren eskatzailea izan daiteke, baina Euskadiko suspertze ekonomiko hasi barriak eta enpleguaren hobekuntzari esker prestazio honen onuradunen kopurua bere maila bajeunean dago 2014tik.



Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

Kontrol analitikoak

Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

Diagnostiko integralak

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

Aholkularitza

Formakuntza



C/ Zabalea, 13 - Galdakao . T. 944 566 580
www.biotalde.com • info@biotalde.com • biotalde.blogspot.com



EUSKADIKO ZURA ZURE BIZITZAN LA MADERA DE EUSKADI ESTÁ EN TU VIDA

Gure basoetan egiten dugun kudeaketa iraunkor bati esker hemengo zurarekin egindako produktuak erabil ditzakegu. Produktu paregabeak, berriztagarriak eta kalitatezkoak, ingurumena errespetatzen dutenak.

Gracias a una gestión sostenible de nuestros bosques podemos disfrutar de productos elaborados con madera local. Productos únicos, renovables y de calidad que respetan el medio ambiente.



KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKOONOMIAREN SAHARREN
ETA LEHENKORTASUN-BALIA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

www.gure-zura.org





SAN ANDRESEKO GANGA, egur polikromatutako unibertso harrigarria

Ibarrangeluko hondartzak altxor naturalak dira baina herri honek bitxi artistiko parebakoa gordetzen dau: San Andres Eleizaren (XVI.m) barruko egur polikromatuko ganga gotiko ederra. Pintura mosaiko berezi honek, balio artistiko handikoa, misterio eta errealitatezko unibertsoa gordetzen dau.

San Andres Eleiza Euskal Herriko tenplurik berezietarikoa da, "Euskal Artearen Kaperera Sixtinoa" izendatu ebeen, bere barne ganga dela eta: haritz-egurrezko teilatu erraldoi polikromatua, bertan kurloiak, santuak, burezurak, munstroak edota zaldunen pinturak agertzen dira, misterio eta errealitatezko unibertsoa sortuz. Teknika piktorikoaren erakustaldia da hau, XVI. mendearen hasieran Espainiako erresumako eliza eta katedralik onenetan modan zeuden harrizko diseinu konplikatuak egurrean eginez.

Lan hori bere garaiko arkitektura oso ondo ezagutzen eban maisu eraikitzaileak diseinatu eban. Honek, Erdi Aroko kristau tradizioa irudi profanoen errepertorio apartekoagaz nahastu eban.

Altxor artistiko zoragarri hau, bisita gidatu dibulgatzaile eta didaktikoen bitartez dago eskuragarri. Hauei esker lan eder hau ezagutu eta mirestuko dozu.

Erreserbak: 94 625 06 06 / 634 243 762
www.visiturdaibai.com

Indigena bizia...
Urdaibain
orain 2500 urte

Arrola gune

Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroa



Loiola Auzoa 4 / 48383 Arratzu (Bizkaia)
Erreserbak: 94 625 06 06 / 634 24 37 62



JOSE ANTONIO URIARTE *ITXASO,* *KOMUNIKETAN,* *KOMUNIKETAN,* *KOMUNIKETAN...*

Ikus-entzunezko komunikazioa artisaulan izaten zan garaietatik erreboluzio digitalarte, izendatzaile komuna, Busturialdean, Jose Antonio Uriarte, "Itxaso" da. Komunikatzaile guztietatik nabarmenenada. Bere komunikazioarekiko zaletasunak eskualdeko gertaera nagusien erdi-erdian jarri dau. Hasieran Gernika Irratiagaz, gero Onda Vasca-gaz eta azkenik Oizmendi Telebistagaz. Orain "toreatzeari utzi" dau eta jubilatuta gisa, lasai-lasai bizi da "plazara irten barik".

Zure ibilbide profesionala erreparatuz, noiz eta zelan hasi zan Komunikabideetan abentura?

7 urtegaraz argazkiak egiteko zaletasuna neukan. Kamararik ez eta "klik" egiten eban kamara bat fabrikatu neban. Argazkiak ez nebazan ataritzen baina "argazkiak aterateagatik" txakur handi bat kobratzen neutsezan kuadrillakoei. Estimaten neban Carlos Magunak Gernikako kazetariak zeukan magnetofono eroangarri baten oinarritu nintzen kamararen soinua lortzeko. Honen lanari erreparatuz profesio honegaz liluratu nintzen.

14 urtegaraz gutxi gorabehera, aitak, asko gustatzen jatala ikusita, Ojangurenen magnetofonoa erosi eustazan, dirutza bat kostako jakon. Orduan, herriko gauzak grabatzen hasi nintzen, inork ez ebazan grabatzen. Lantzean behin Bilboko Herri Irratia etortzen zan notziaren bat grabatzeko.



Sasoi hartan, *Don Jose Luis Abaunzak* familia askori laguntza emon eta Gizarte Etxea inauguratu eban. Berak zinearekiko zaletasun handia zeukan eta 8 milimetroko kamara bat erosi eban. Abadea zan, sotana eramaten eban, eta lotsatu egiten zanez berak ez eban grabatzen kamaragaz. Hasieran, Juan Luis Arrazua, "Lagun"eri emoten eutson berak grabatzeko. Eta gero nigan erreparatu eban grabatzeko. Grabatzen gendun guztia berari emotea zan baldintza bakarra.

Halanda be, zure lehenengoko lanak ez ziren ikus-entzunezko mundukoak izan

Horixe da, delineatzailea izateko bidea hartu neban. Maisutza industrialak ikasi neban eta hortik, Atxurira joan nintzen delineatzailetza ikasteko. Inamako lehen delineatzailea izan nintzen. Egin neban lehenengoko planoak taula aglomeratu baten gainean egin neban.

Baina egonezina sartu jatan, jada. Herriko mugida guztietan egoten zen Alberto Urrutia "Reverendo" ikusten neban, beste pertsonaia bat. Txirindularitza lasterketetan publikoak helmugan geratzea lortzen eban honek, kontatzen ebazan historiak entzuteko. Beti pentsatzen neban:... *ahalko banu*...

Aurkezle bezalako nire lehenengo pausuak soldadutza egin aurretik emon nebazan. Gernika-Lumoko plaza aurrean zegoen *Ametsa* dantzalekuan egin zan *pelotariari agurrari*. Javier Zamudiok nik aurkezteko esan eustan eta, bildur apur batez be, baina ondo irten ebala uste dot.

Kontaiguzu kamaragaz emondako hasierako pausu hoiek...

Pelikula bat grabatu gendun be. "Lagun", Luis Muñecas eta Sagredo aktore lez, Carlos Maguna, Fernando Abaunza... eta beste askok parte hartu ebeen. Eskolatik eskapatzen ziren bi umetxoek istorioa kontatzen eban pelikulak. Gernikan grabatu zan. "Lagun"ek teknikoki trebezia handia zeukan. Erabili gendun guztia, bideak, travelling-ak, tripodeak...berak egin ebazan egurrez. Olaeta Balletaren fresnel fokuak erabili genduzan. Herrian mugida handia izen zan... *San Dios bendito*... Ni kamara laguntzailea eta Script izan nintzen. Estreinaldia apoteosikoa izan zan.

Publikoak ilara luze bat egin eban "Faisán"erarte Gizarte Etxera sartzeko. Gorarte bete zan. Pena da pelikula hondatuta dagoela.

Garai hartan abentura handiak bizi eta estualdiak be pasa dozuez, ezta?

Bai, hasierak mugimendu handikoak izan ziren eta oso dibertigarriak be. Hasiera baten, *Gernika Futbol Klubeko* partiduetan Herri Irratirako esatari izan nintzela gogoratzen dot. Orduan, *Gernikak Deportivo de La Coruña*-ren kategorian



jokatzen eban. Ta han nengoen ni, nere kabinatxoan disko-jogailu zahar-zahar batez. Hortxe irratia *pozoia* sartu jatan. Garai honetan izugarriko abenturak bizi nebazan. Orduko Presidentea Oscar Elguezabal eta *Don Jose Luis* abadea tribunan zeuden beti partiduak ikusten. Partidu lapurreta emon zan, animoak berotu eta izugarriko haserrea hartu ebeen. Guardia Zibilaren bikoteak korrika egin behar izan eban arbitroaren kontra zihon zuzendaritza eta publikoak gelditzeko. Xelebrea izan zan eta nik guztia goitik ikusi neban. Sarjentua, ile zuri eta biboteduna, arbitroaren aurrean jarri zan bere metrailetaz eta lurrera emon eban tiro-sorta bat. Jendetza atzera egin eban berehala eta *Don Jose Luis-ek* jesarlekuaren azpian sartu zan.

Gero, Herri Irratiko kolaboratzaile izan nintzen, bertoko notiziak emoteko. Busturialdeko barriemoilea, lehena uste dot. Gauze bereziak be egiten nebazan, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena, adibidez.

Noiz emon zendun zeure irratira saltoa?

Fraga Iribarne Kultura Ministroa zan garaietan, ministeriora bota gendun karta bat irratia bat martxan jartzeko baimena eskatuz. Ez gendun erantzunik jaso. Baina zeozer egiteko gogoak ez ziren joan. Lizentzien kontzesioak zabaltzearen gaineko zurrumurruak aprobeztatu gura genduzan... 87.ean FM-ren lehen kontzesioa emon zela uste dot eta gu zerrendatik kanpo geunden. Orduan martxan jarri giñen. *Errugby Klubaren* antzinako tabernaren gainean irratia ezarri gendun. Egin neban lehenengoko elkarrizketa, Carlos Muniategiri, "Charlie"ri izan zan, Gurutz Gorriko presidentea izan zena.

Antena teilatuan zegoen eta etxeetako xurgagailuak, ile-lehorgailuak, garbigailuak entzuten ziren... *...mundu guztiak* deitzen eban esanez: "...aizu, telebistan irratia entzuten dot..." Eguren (optikoa) difuntuari esker Jesus Bilbao ezagutu neban. Azken honek, Bermeoko eta Ondarroako itsasontzietan komunikazio aparatuak ezarri ebazan. Egiten genbiltzana gustatu jakon eta transmisio osoa montatu eustan. Lagun handiak egin giñen. Filtroak beharrezkoak zirela eta antena mendian ezarri behar zala irakatsi euskuzan. Antena Aixerrotaren gainean jarri

gendun eta lana ondo egiten hasi giñen. Ez ziren entzun gehiagotan xurgagailuak.

Garai hartan, Inamatik Maltara joan nintzen, salmenta ikuskari gisa lan egiteko. Irabazitako dirua irratian sartu neban. Gero, Iparaguirre-Deiagaz batu nintzen. Batera gauza eder bat egin gendun. Orduan, jada, Onda Vasca zan. Baina neure kazetari-ezinegona ez neban bete oraindik. Eta kazetaritzaren euskal mugimendua hasita zegoenez...esan neban...eta zergatik nik ez?

Momentu horretan erabaki zendun telebistarena?

Bai, telebista bat martxan jartzea pentsatu neban. Jesus Bilbaori deitu neutson, lagun handiak gara oraindik, baita Gotzon Munetari be. Azken honek, animoak emon eustazan berak Bilbon Canal Bizkaia martxan jarri ebalako eta 3 kamarakaz martxan zegoelako. Jesus Bilbaok nire lagunak muntaketa osoa egin eustan eta horrela hasi giñen.

Zein da zuretzako ekintza mediatikoarrik gogoangarriena?

Irratia martxan jartzea garrantzitsua izan zen, garai hartan ez zegoelako bertan holakorik... baina telebista martxan jartzea, horregaz bai, horregaz oso harro nago. Hasieran Urdaibai Telebista izena zeukan eta Gernika-Lumon ikusten zan. Gero, ingurukoek ikustea eskatzen eban. Aixerrota antenna bat izatetik, Burgoara (Ajangiz) pasa gendun eta ondoren Oiz mendira. Hortxe aldatu zan Oizmendi Telebistaren izena. Estudio barria eta plato barria prestau gendun. Hasieran kritikak jaso genduzan, ETBgaz konparatzen gintuzten eta. Azkenean, gauzak egin doguz herriko telebista bezala.

Zeure ibilbide profesionalaren zein momentu nabarmenduko zeunke?

Gogoan daukat nire magnetofono ederragaz grabatu nebazala Gizarte Etxean Jose Antonio Arana Martijak antolatutako "Sakonki, Jardunaldi Kulturalak". Bertan, pentsalari eta literato handiak parte hartu ebeen. Egun horretan, ikurriña ofizialki baimendu ebeen. Norbaitek moderatzailea izan zen Jose Antoniori *belarrira* emon eutson notizia. Izugarritzko txaloketa izan zan ...oraindik hunkitu egiten nau. Julito Bareñok ikurriña prestatu eban haga baten eta atzeko partetik sartu zan. Mundu guztia zutunik jarri zan. Uste dot guztiok egin genduala negar. Oraindik hunkitu egiten nau momentu berezi honek.

Bizi neban beste gertaera bat Gernikan Erregen atxiloketa izan zan ...ni Gaspar nintzen... (gogoratzen dau barre artean).

Kontaiguzu anekdota hori...

Toña alkateak Errege Magoen itxura aldatu eban. Ez ziren nik txikitan ikusitako Erregeak, bilurre emoten ebeenak. Toñak karroza oso politak egin ebazan, Gernika-Lumoko 3 taxistek lotuta eramaten ebeenak. Baina guk kabalgata goizaldeko 4retan egitea erabaki genduan. Hirugarren urtean Olazar difuntua, Rivas eta Urrutxua gugaz bat egin ebeen, hirurak tronpeta jotzen ebeen herriko bandan. Ze ondo entzuten zan! Ze pozik gindoazen, zentzu zabalean...eta Lorategietararte joatea pentsatu genduan. Bueltan Guardia Zibila zegoen gu itxaroten. Alondegi zaharra zegoen lekurarte "lagundu" euskuen. Epailaren aginduari itxaron behar izan genduan, "nonork" Guardia Zibilaren Hidalgo Kapitaina iraun egin eban eta. Anekdota zabaldu zan, izan be, Venezuelako osaba-izekok handik bota eustazan aldizkaria eta titularra hauxe zan: "Errege Magoak atxilotuta Gernikan".

Gernikarra ala Mundakarra? Azaldu eiguzu sinbiosi hau

Ni gernikarra naz. Nire ama Mundakarra zan eta bertan hazi naz be. Hortik, datorkit "Itxaso" abizena tx-gaz. Ume bat nintzela "Tormenta" pelikularen filmazioa gogoratzen dot. Leihotik ikusi neban. Mundakan nire haurtzaroaren zati handi bat igaro dot. Baten, ia-ia ito nintzen, ugaramariagaz itsasora jausi nintzenezan ranpatik. Atorrek lehen aldiz ikusi nebazanean liluratu ninduen.

Gernikarra naizenez geure ohituretan parte hartzen dot, Marijesietan, adibidez. 50 urte daroatez abesten. Egun baten, marijesietako batek, Salegi difuntuak, bakarlari bezala kantatzea proposatu jatan. Orduntxe hasi eta gaur egunerarte. Sasoi baten, Jose Antonio Arana Martijak, egunero, bere kritika musikala egiten jakun. Berak egindako ohartxu bat gogoratzen dot: "...*gaur Jesukristo kurtzifikau dozue inoiz baino gehiago...*" Orain asko hobetu da eta emakumezkoen ahotsak dira nagusi. Sasoiak aldatzen dira.

Orain, jubilatuta, zertan emoten dozu denbora? Ametsik betetzeke dozu?

Orain lasai bizitzen naiz, gustura. Ez daukat egunero enpresaren bakuen kontuak begiratzeko buruko minik... Ibiltzea gustukoa dot eta egunero noa ibiltzen. Geratzen jatan atsekabea euskarazko tokiko telebistak batzeko martxan jarri genduan Tokiko proiektua da (orain Tokikom). Nire ustez, ideia oso ona izan zan baina bidean geratu da. Baliabide gehiago eta garrantzi gehiago izan beharko luke.

Laburtzeko zera esango nuke: lehen egiten nevana egiten jarraituko nuke ahal banu, baina ez daukat astirik, *ibiltzen joan behar dot*.

Argazkiak: Jose Antonio Uriarte, "Itxaso"

kutxabank




Etxebizitza erosteko eta hura finantzatzeko
prozesuan lagunduko dizugu.

Kutxabanketxebizitzagida.eus

kutxabank
ORAIN

kutxabanketxebizitzagida.eus

- Kontuan hartzeko alderdi garrantzitsuen zerrenda.
- Gastu-simulagailuak, kuota, hipoteka-konparatzailea.
- Intereseko estekak.



MATXITXAKOKO ITSASARGIA, Urdaibaira eramaten gaituen argia

Matxixakoko lurmuturraren tontorrean, Kantauri itsasoaren gainean, bere itsasargiak 1909tik emoten dau argia. Oso metro gutxira bere aitzindariak, 1852. urtekoa, bere planta eta historia mantentzen dauz. Bere argi-izpien kadentziak arrantzaleak portura bueltatzeko norabidea eta erritmoa markatzen dau. Geure kostaldeko erreferentzia da, nabigatzaileen trebetasunaren lekuko mutua.

1852ko abuztuaren 21ean isiotu zan Matxixakoko lehenengo itsasargia, Itsasargi Zaharra. Itsasargi zahar hark argi fijoak eukon eta 4 segunduro distirak; bertan egon zan itsasargi dorrezainen eskola, 1863an Madrilera pasatu eben arte. Antzinako dorrea laino-sirena lez erabili zan

1904an itsasargi zaharrean ezin zanez oineztu-sistema modernoago eta ezagutzen errezagoa ipini, ezta eraikina konpodu be, Francisco de Pérez Muñoz jaunak, Errepide Ingenieriak, itsasargi barri baten proiektua egin eban, gaur egungo Matxixakoko itsargiarena, hain zuzen. 1908an ipini zan lehenengo harria eta 1909ko abenduaren 1ean, Rafael de La Cerda ingeniari ezagunak, aparatua, dorrea eta linternea ipini eta gero, gaur egun daukogun Matxixakoko Itsasargia estrainekez isiotu zan.

Itsasargi zaharretik 110m hegoaldera eta foku-planoa itsasoaren mailaren gainetik 122 metrora dauala, Matxixakoko Itsasargia itsasoko 24 milatara ikusten da, hau da, 44.448 kilometrotara. Bere argiak Castro Urdialesetik Deba ibairarteko gunea argizatzen dau. Eraikin berberatik irrati-faroa emititzen da, Cabo Mayor eta Cap Ferret-ekoekaz batera, 100 miliako helmenagaz.

Oraingo Matxixakoko itsasargia oin dala mende batekoaren antzekoa da. *"Funtzionamenduari jagokonez, 1909. urteko jatorrizko sistema erabiltzen dau. Optikak bueltak emoten dauz marraskadurarik euki ez dagian eta kojinetek gastau. Merkurioz betetako upela da, optika gainean dauko, holanik inoz ez da kateatuko eta ez da gastatuko"*, azaltzen eban Alejandro Martínezek dorrezainak, itsasargiaren mendeurrenaren ospakizunetan.



BA AL ZENEKIEN?

1852

Abuztuaren 21a. Estrenaikoz isiotzen da Itsasargi Zaharra.

1909

Abenduaren 1a. Itsasargi Barria isiotzen da.

1913

Metereologia-Behatokia Itsasargi Zaharrean.

2008

Linternea barriztu eta Itsasargia konpondu.

2009

Abenduaren 1a. Mendeurrena.

.....
Itsasargiak 7 sengunduro emoten dau distira.
.....

Bermeok hiru itsasargi izan dauz: Erroxapeko Itsasargia eta Matxitxako izena daroien biak.
.....

Bermeoko lehenengo Itsasargia egitea 1852an amaitu zan, Matxitxakoko Torrondo deitzen dan lekuan egoan eta 60 urtetik gora ibili zan. Gaurkoa Sekudi izeneko lekuan dago kokatuta.



Eraikin ikaragarriak, planta angeluzuzena dauko eta bere sarrera nagusia erdi-puntuko arkuan dago. Honek dorrezainen etxea izan da martxan ipini zanetik, eta horretarako, logela haundiak eta mantenimenduko beharginentzako gelak daukoz.

Mende bat baino gehiagotan zehar, dorrezainen familiek itsasargia euren etxe bihurtu dabe. *"Barru-barruan daroagu bizitza osoan. Ez da gu lako asko geratzen"*, kontetan dabe "Itsas-SeinaleTeknikoen" edo antzinako dorrezainen senideek.

Itsasargiak antzinako oroitzapen magikoak eta nostalgikoak gordetzen dauz. Baina itsasargiaren distira nekaezina ekaitz bortitzen, itsaso zakarraren eta, antzinaan, naufragioen lekuko izan da.

Ucelay,

Busturia inspirazio iturri izan eban margolari berezia eta unibertsala

Busturiako argia, bertako biztanleak, Urdaibaiko bistak eta paisaia bere inspiraziorik onena izan ziren. Parisera joan zen abangoardia artistikoaren bila, baina etxean bertan aurkitu eban, Txirapozu Jauregian alegia. Jose Maria Ucelay eta Uriarte, eskualdeko pertsonaia ospetsua, "euskal eskola" deritzonaren margolari originalena izan zen. Bermeon jaio zan 1903ko azaroan. Sasoi baten Bilbon bizi zan. Eta 12 urte ebazanean bere familia osoa Busturiara joan zan, amaren jaioterrira.



Ucelay-ren artelanak estilo bakarra dauka, pertsonala eta oso markatua. Bere obren errealismo magikoak, formen imitazio soila gainditzen eban. Garaiko erretratu margolari hoberenatarikoa zan. Margolari autodidakta honek, maisu edota dizipulu barik, paisaiak eta erretratuak atmosferan berean batzen ebazan, perfekzio tekniko handiko forma estilizatuetan margotuz.

Jose Maria Ucelay eta Uriarte Bermeon jaio zan 1903an, eta han bizi izan zan 6 urte bete arte. Behin eskola-adina izanda, Bilbora doa familia guztiagaz batera eta 1912an, epidemia baten ondorioz, Busturira joan ziren bizitzen, amaren jaioterrira. Txirapozu izeneko etxean bizi ziren. Zuzenbide eta filosofia ikasi ebazan Deustuko Unibertsitatean (1920-1921) eta Oviedoko Kimika Eskolako ikasketak (1921-1922) alde batera utzi ebazan margolari gisa jarduteko.

Ucelay, Busturian bizirik

Bere ibilbide artistiko guztian zehar beti izan eban Busturia eta bere Txirapozuko etxea gogoan, bere inspirazioaren epizentroa. Hori dela eta, udalerrriak eskertu gura izan eutson bere lurraenganako maitasuna Herriko Eskola Publikoari bere izena ezarriz.

Busturiako etxean orduak emonez *ikasi* ebazan bere pinturaren gakoak. Bere lanetan leihoak, mahaiak eta aulkiak, mantelak, erretilu orientalak, zeramika piezak, eskopetak eta loreak margotu ebazan, baita sarrerako mimosak edota terrazako agapantoak be. Bere koadroen beste motibo batzuk, atmosfera irreal batean murgilduta, Sollube eta Ereñozar arteko Urdaibaiko itsasadarra inguratzen dabezen mendiak, hodeiak, padura eta fauna izan ziran.

Txirapozu etxetik, Ernest Hemingway idazlea be pasatu zan, Ucelay-ren lagun handia. Honek, bere lagun mina izan zan Juan Duñabeitiagaz erretratatu eban.



José María Ucelay: Torre Madariaga. Olio-pintura / taula 90 x 120 zm.
66/7/12 Busturian sinatuta, titulua jarrita eta datatuta.
Bilboko MICHEL MEJUTO galeriak adeitasunez utzitako irudia.



Txirapozu Jauregia, Busturian



Busturiako J.M^a. Uzelai Herri Ikastetxea.

Ibilbidea

1922an bere aitari bere margolari bokazioa jakinarazten deutso. Eta aitak bere ikasketetarako gordeta zeukan dirua emon eutson. Mundu artistikoagaz izan eban lehen kontaktua, *Euskal Artisten Elkartearen* bitartez ematen da. Beraiekaz batera sortu ebazan lehenengo erakusketak. Bere artelanak giro artistiko aurreratuenetan estimatzen hasi ziren. Sasoi hartako lanik azpimarragarrienetakoak dira Bermeoko Batzokian sortu eban murala (1933) edota Ercilla Dorrekoa, besteak beste. Bere hurrengo urratsa, Pariserara bidaiatzea da. Urte batzuk eman ebazan bertan eta abangoardiako artistekaz erlaziozatu zan, hala nola, Alejo Carpentier, Le Corbusier, Unamuno, Maurice Ravel, Stravinsky, Falla eta Picasso-gaz. Guztiekaz solasaldietan parte hartu eban. Lagun handiak egin ebazan, Ernest Hemingway eta Pancho Cossio, kasuan kasu.

1936an, Jose Antonio Aguirre Lehendakariak Arte Ederretako zuzendari kargua eskaini eutson. Gainera, Pariseko erakusketan (1937), Euskal Autonomia Erkidegoko pabiloiko zuzendaria be izan zan. Han negoziatu eban Picasso-gaz *Guernica* obraren patua. Gerra zibilean zehar arte-lan guztien babesa bermatu eban eta garaiko beste artista askoren gisa, erbesteratua izan zan 1938an. Ingalaterran babestu zan 1949. urtera arte. Bertan, Queen Mary eta Caronia trasatlantikoen muralak margotu ebazan.

Itzuleran, bere Txirapozuko etxea izan zan bere aterpea. Bertan, bere sormen eta erakusketa lanei jarraipena emon eutsozan. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, hainbat enkargu jaso ebazan, baina ordaindu ez. Arazo ekonomiko larriak izan ebazan. Hori dela eta, krisialdi sakon batean murgildu zan. Muralak alde batera utzi, eta oihaletan margotzera eta marraztera mugatu zan. Koadroak salduz bizitzeko adina ateratzeko modua zan. Orduko margolanak garai bateko oroitzapenak berreskuratzeko saio bat izan ziran; garai hobeak, dudarik gabe. Londresera eta Pariserara egin ebazan bidaiak gogorarazteko.

Ucelay Bilbon hil zan 1979ko abenduaren 24an, 76 urte ebazala.

Saltsa-Porru

Geure irakurlea
den *Agapito Pérez*
gernikarraren errezeta,
2008ko Euskadiko
Txapelduna

Osagaiak

1 kg. karakol
200 g. pernil
50 g. txorizo
Oliba olio basu bat
Ozpina
Gatza

Saltsa prestatzeko

2 kipul gorri
12-14 piper txorizero
½ kalabazin
½ sagarra
Okela-salda
Oliba olio
Gatza



Elaborazioa:

Karakolak ondo garbitu, ozpina, ura eta gatzagaz. Ondoren, gatzatutazko ur askotan ordu erdiz egosiko doguz. Ura aldatuko dogu, ur barria irakitan egongo da, barriro be karakolak egosteko 45 minutuz.

Olio zartaginera bota eta pernila eta txorizoa prijidu zati txiki-txikiak eginda. Hauxe, karakolakaz nahastuko dogu. Prestatutakoa bizkaitar saltsara bota eta guztia beste 15 minutuz egosiko dogu.

Saltsa prestatzeko:

Piper txorizeroen okela atarako dogu. Hau lortzeko piperrak ur beroan sartu eta biguntzen utzi. Kipula, kalabazina, sagarra eta piper txorizeroaren okela poxatu. Okela-salda gehitu eta guztia txinotik pasa. Saltsa loditzeko ogi-mamia bota ahal jako.

KARAKOLAK, NEGUKO PLATERRA

Molusku txiki hau geure Gabonetako mahaietan protagonista da. Batu, prestatu eta jatea, esfortzua eta trebezia eskatzen dauen erritual baten parte da historikoki. Gaur egun, karakol gehienak helizikulturatik datoz, barraskiloen hazkuntzatik.

Karakol arrunta Europatik dator. Animalietatik etorritako proteina iturria izan da betidanik, gizakiak historiaurretik, kobazulotan bizi zanelarik jan dau. Bere okelak oso kaloria gutxi emoten dauz, balio biologiko handiko proteinaduna da eta substantzia mineralak be emoten dauz. Ezaugarri hauei esker karakolaren okela elikagai aparta da, digestino errazakoa, osasunerako ona eta elikagarria. Halanda be, ohiturari jarraituz, ogia bustitzeko saltsa gozoekaz batera jaten da. Hau dela eta, bere balio energetikoa nabarmen igotzen da.

Badago karakolak astunak izan daitezkeela nork esaten dauen, hori txarto garbitzearen errua izan liteke. Karakol gozoak prestatzeko ondo garbitzea funtsezkoa da, banan banan eta zehaztasunez: moluskuak gatzitutako uretan sartu minutu batzuk, banan banan iturrian garbitu eta kazolan egozten doguz. Egosterakoan ura aldatuz joan behar dogu ura garbia irten arte. Kazola be ondo garbitu behar da egosketa bakoitzeko.

Gaur egun, jateko moluskuen hazkuntza gorantz ari da. Mundu mailan Frantziako merkatua da nagusia. Betidanik egin dan batze sistema tradizionala ez da nahikoa beharrianak betetzeko eta horregatik Frantziak Espainia bezalako beste herrialdeetatik inportatzen dauz. Euskal Herrian hauek hazteko klima egokia da. Bertan, karakolak jatea oso ohitura zabaldua da. Halanda be, hauek jateko sasoiak desbardinak dira. Adibidez, Araban San Prudentzioak ospatzeko jaten dira, apirilean, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, Gabonetan.



Karakolak, neguan hobeto

"Karakolero" adituek neguko karakola eta udakoa desbardinak direla diote. Neguan oskolagorraga eta okela gozoagoa daukate. Gainera, garbitzeko errazagoa da moko gutxiago izanda. Geure errezeta tradizionalak bizkaitar saltzara prestatzen dauz. Txapelketa mailako aurkezpenetarako, karakolak buruz behera jarri behar dira, txukun-txukun, eta okela agerian izan baina koskolatik kanpo egon barik. Are gozoagoak egongo dira hauek jateko pare bat egun itxaroten badoguz.

Gaur egun, karakolak bizirik merkatuetan aurki daiteke edota aurretiaz egositakoak, izoztuak, kontserban, latontzietan... Baina Busturialdean tipikoa da karakolak batzea egun euritsuetan, euria atertutik ondoren.

BA AL ZENEKIEN?

- Karakolaren arrautzak jaten dira, kabiari zuria lez prestatuz.
- Erdi Aroan askotan jaten ziran, honen okelak garizumako abstinenzia apurtzen eban. Prijiduta jaten ziran edota egosita.
- Leonardo Da Vinci-k bere sukaldaritzako oharretan karakolak nola zerbitzatu edota karakol-sopa nola prestatu azaltzen dau.

Berdean

*Ogellako
marearteko
zabalgunea,
apartekoa*



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

IBILBIDE
TURISTIKOAK
Kulturalak eta ekologikoak top

KARTARA, **UMEEKIN**
URTE GUZTIAN ZEHAR

Erreserbak: www.visiturdaibai.com



EUSKAL
SOUVENIRS



Andra Mari kalea s/n.
48300 **GERNIKA**

946 251 930 - 685 758 102

euskal.souvenirs@gmail.com

www.euskalsouvenirs.com

Busturialdeko biodibertsitate aberatsa, Ogellan (Bedarona-Ea) berezia bilakatzen da. Bertan, itsasbeheran, marearteko zabalgunea agerian geratzen da, edertasun bereziko eta ingurumen balio handiko panoramika.

Ogellako marearteko zabalgunea Bizkaiko ekialdeko kostaldean kokatzen da, Ea eta Lekeitio artean. Hemen, kosta erdi-ekikutako badia lez agertzen da, mendebaldean Apikale muturra eta ekialdean Otoioiko itsaslabarrak mugatuta. Kokapen honek olatuetatik babestuta mantentzen dau. Eta kostaldeko itsas hondar harritsuetan bizi diren organismoek gehien eragiten deutse faktore honek. Horregatik, berezitasun gehigarria dauka flora eta faunari dagokionez.

Ogella bezalako abrasio plataformak edo marearteko zabalgunek, haizeak eta olatuen higaduragatik eratzen dira. Honek, milaka urtez, geure kostaldeko profila moldeatu dau. Itsasoaren menpean dauden guneak dira. Itsasbeheran agerian geratzen dira eta bere ingurumen-egoerak asko aldatzen dira oso denbora gutxian.

Hau dela eta, organismoek egoera aldakor hoiei egokituta egon behar dabe. Itsas beheran gune harritsu asko geratzen dira agerian baita sakonera ezberdineko marearteko putzuak be. Gune hauetan marearteko eta kantauriar kostaldean tipikoak diren ur sakonera gutxiko itsasaldi azpiko mailletako komunitate biologikoak daude.

Ogellako marearteko zabalgunean, itsas fauna eta flora aberatsa aurkitzen dogu. Nabarmenezkoa da, bertako itsasbedar endemikoa (*Fucus chalonii*). Euskal Herrian itsasbedar hau Hendaiaiko Andagorrian eta Ogellan dago soilik. Itsasbedar txikia da arrebentonikoa. 5 zentimetroko altuera dauka eta 2mm-ko zabalera. Barreiatutako espezieak agertzen dira kostaldeko beheko aldean. Honen populazioa asko murriztu da 1941an aurkitu zantetik. Marearteko putzuetan holoturiak, itsas trikuak, itsas izarak, eskarrak, moluskuak, olagarroak edota anemonak aurki daitezke.

Euskadin Zumaiako flysch-aren balio geologikoa ezagunena bada be, hemen Ogellakoa aberastasun biologikoa eta biodibertsitate handikoa da. Fenomeno geologikoa berezia da hau, kareharri eta hareharrien xaflak eratutakoa, buztina bezalako beste material batzuek batera. Lurraren azalera higituak olatuen etengabeko higadura erakusten dau.

Balio ekologiko handiko, biodibertsitate aberatsa daukon eta udan askotan bisitatzen den gune honek ez dauko babes berezirik. Hau dela eta, ezinbestekoa da, altxor ekologikoa eta geologikoa hontaz ohartaraztea.



Beti-Jai



Horra horra, Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 24an, Euskal Herriak
Olentzerori egiten deutso harrera.
Opariz beteta datorren pertsonaia

onkotea...batzutan be ikatza ekartzen dauena, ume zein nagusientzako. Jesus haurtxoa jaio dala iragartzen dauen basagizon edo ikazginak sasoi batetik hona Mari Domingigaz batera dator, andrazkoa, maitagarria eta atsegina.

Olentzeroren historia antxinakoa da eta era askotakoa. Garai eta sinismen ezberdinetara egokituz joan da eta gaur egun, abenduaren 24an, geure kaleetatik zehar ikusten dogu, Mari Domingigaz eta bere astotxo zintzoagaz.

Izen desbardinak jaso dauz, hoiien artean Olentzaro, Orentzaro edota Onentzaro. Antxinako bertsoiak bat datoz Jose Miguel Barandiaranek aipatzen ebanagaz. Bere esanetan honako hau entzun eutson Aralarreko artzain bati: *Gurasoek seme-alabei ahoz azaldutako ohitura bati buruz mintzantzen da, behar bada neguko soltzizioa ospatzen zen eguna. Inguruko paganoek eta jentilek Matxabaleta zelaian dantza egiten ebeen, Aralarren. Orduan hodei bat hurbildu zan eguzkia estaliz. Bertan zeudenak ikaratu ziran, nagusienak odeiak Kixmiren etorrera iragartzen ebal*

asmau eban. Sasoi hartako berbaeran Kristoren etorrera, kristauaren etorrera esangura eban, euren kulturaren amaiera honenbestez. Orduan zera ohiukatu eban: Sortu dek Kixmi, galduak gaita. Jauzi mallotik bera! Bere desioa betez amildegitik behera bota ebeen. Hodeiak artzain guztiak txikitu ebazan bai izan ezik. Horrek inguruko herrietara hurbildu zan gertatutakoa kontatzeko. Artzai hau Olentzero zan. Kristau bertsoan Kristoren etorrera iragartzen dau nahiz eta jatorrizko azalpenean zegoen kulturaren amaiera lez azaltzen dan.

Izenaren etimologiari dagokionez hipotesi desbardinak dagoz. Hoietako batek Olentzero hitza sasoi bati buruzkoa dala azaltzen dau, "onaren sasoi" adierazteko. Egunkak luzeagoak dira eta argiak ilunpearri irabazten deutso.



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIEN alde

Horra Mari Domingi
begira horri
gurekin nahi duela
Belena etorri.
Gurekin nahi badezu
Belena etorri
atera beharko dezu
gona zahar hori.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz goazen ta gurtu dezagun
Belenen jaio den Haurtxo eder hori,
Haurtxo eder hori.
Irrintzi eta poza,
algararekin
hori behar dinagu
guk elkarrekin.
Pozez adora (de)zagun
Jesus haur ona
berak ekar d(i)ezagun
gaur zoriona.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz goazen ta gurtu dezagun
Belenen jaio den Haurtxo eder hori
Haurtxo eder hori.

Denbora aurrera egin ahala Olentzero pertsonaia bilakatu zan. Honen izaera desbardina da zonaren arabera. Horrela, leku batzutan pertsonaia beldurgarria zan txikitxoak ikartzeko erabilia: XVIII. mendean tximiniatik behera igitaia gaz zetorrela azaltzen jakezan emeei. Lo ez zegoenari sama ebaiko eutsola ohartaraziz. Beste leku batzutan, onkotea zan, oso-osokoa eta mozkortia-irudi hau oraindik mantentzen da. Kristau Gabonetan Olentzerok Jainkoa jaio zala adierazten dau. XX.mendean, irudizko pertsonaien ezaugarriak hartu ebezan Olentzerok, Gabonetan opariak ekartzen hasi zen eta.




Nor da Mari Domingi?

Gero eta protagonismo gehiago hartzen ari dau eta askotan agertzen da Olentzeroren ondoan Gabonetako ospakizunetan. Baina Gabon Kanta baten aipatutako pertsonaia izan da orain arte. Jaio den Haurtxoa bisitatzera Betelemera joan gura dauen emakumea da, baina gonaz aldatzeko eta aurkeztarri egotea aditzera emoten deutse.

Bere erropa tradizionalaren ezaugarri nagusia karakol itxurako txanoa da. Euskal Herriko Emakumezkoen buru-estalki tradizional hau XVI. mende aurreko egile askok agertzen dabe. Ez dakigu Mari Domingi ikazginaren bikotea dan, emaztea edo bere laguna dan. Baina emakumezko pertsonaia hau atsegina eta maitagarria da, batez be umetxoan artean.

URDAIBAI
 ©MAGAZINE
www.urdaibaimagazine.eus
Zure Aldizkaria



Zer ideia on!
nueva europa

ARGITARATZAILA: NUEVA EUROPA S.M
Carlos Gangoiti 15, behea / Gernika-Lumo (Bizkaia) / tel.: 94 625 06 06



BIZKAIA

BIZKAIA ZUREKIN ERAIKITZEN.

Iritzia eman, parte hartu, ekin.